

Euri gorriaren azpian



ASIER SERRANO

n a r r a t i b a •

erretin

EURI GORRIAREN AZPIAN

n a r r a t i b a • 153

erein

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.
Egileak literatur sorkuntza sustatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailaren laguntza jaso du liburu hau idazteko.

1. argitalpena: 2024ko irailean

Azala eta liburuaren diseinua:

A. Beltza

Maketazioa:

Erein

© Asier Serrano

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-979-6

L.G.: D 705-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Asier Serrano

EURI
GORRIAREN
AZPIAN



erein

Ane, zuri: nire alaba, nire etxea, nire euri gorria.

GENESIA

edo konkordunarena dirudien itzala

*Gerran denak balio du,
baita etsaia bizirik uzteak ere.*
(Soldadu anonimoaren alarguna)

Zerura begiratu, irakurle. Orain, itzuli begiak orri hauetara. Zerua ekografia lazgarria izan daiteke, baldin eta kotoizko hodei erraldoietan berunezko hondoa margotzen baduzu. Ekografien itzalak argitzearen artea omen da egungo kiromantzia. Barne oihartzunen irakurketa. Haragi zati ustelduek jaso dezaketen historialaren interpretazioa.

Izenik eta izanik gabekoa naiz oraindik, eta halere, bada-
kit idazten. Utziozu zeure zeru inperfektua kontenplatzeari;
bestelako argazki hau deskodetzearen jokora gonbidatu nahi
zaitut. Har ezazu oraingoz bekaturik obratu ez duten esku xi-
murrik gabeon artean irudimenari ostutako fotoa. Esadazu zer
den ikusten duzuna. Zaude lasai, ziurrenez, egin dizudan
erronka onartuko lukeen ehuneko laurogeita hamabiak eran-
tzun bera emango bailuke: ilargi betokerrak harrizko horman
argizatzen duen konkordunaren itzala. Ongi, gera bedi zeure
garunean imajina. Latza begitanduko zaizu irudia, gordina,
okre edo sepia kolorekoa.

Aurreratuko dizut kale egin duzula; ez dela konkordunaren
itzala. Ez eta, erantzunen ehuneko zortziari kasu gutxienekoa
egiten badiogu, sustraian zapatetako lokarriak lotzen ari den

zuhaitz ihartuaren itzala, ezta bere buztanaren xerka makurtu den zakil demasekoaren itzala ere, ezta inork agindu eta heldu barik lur soila destatzen duen errebolberraren itzala ere, ezta kanpandorretik bere buruaz beste egin duen ezkila nagusiaren itzala ere... irudian katedraleko kanpandorreari eusten dion horma ageri bada ere.

Zeuretzat erantzuna... tori soluzioa: itzal bakarrean bildutako bi giza itzal gau zaurituaren erdian edonora herren ihesi. Estatu-kolpe arrakastatsuan parte hartu ondoren desertatu berri duen soldadu jipoituaren itzala da lehena. Bigarrena, lehen itzalak bizkarrean zamatzen duen neskato bortxatuaren itzala. Bi itzal batean. Ez da okre edo sepia kolorerik argazkian. Noiz-behinka, zuriak eta beltzak gorria sortu dezakete.

Horrela hasi daiteke balizko eleberri bat. Eta balizko eleberriaren balizko irakurlea zaren horrek galdetuko du: eta nola heldu dira bi gizagaixo horiek egoera tamalgarri honetara? Bada, irakur itzazu tentuz, gura baduzu noski, gure bi protagonisten banakako ondorengo testigantzak.

OHARTXOA: irakurleak argi eta garbi izan behar du bi testigantzak testuinguru ezinezkoan emanak izan direla, alegia, horrela deskribatuko luketela jazotako amesgaiztoa baldin eta justizia deitzen dugun marmolezko damak begietako oihala kendu eta bere nakarrezko begiak agerian utziko balitu gizatasun etiko apurraz obratzeko; baldin eta gizonak eta neskatoak jasan dituzten haragiaren eta arimaren bortxazko tortura lazgarriek ez balute mugatuko edo mututuko gertatutakoaren egiazko bertsioa; baldin eta patuak kokatu zituen herrialde politikoki aldakorrak bermatuko balie bigarren bizitza aukera dui-nen bat; baldin eta fededunen zeruan deabrurik balego sufritu

duten guztia mendekatuko lukeenik; baldin eta hotzez eta ikaraz ez balira egongo; baldin eta hezur-muinetako hotzikarak baretasunezko oratoria lirikoan hitz egiten lagako balie; baldin eta nora seguru eta erosorik izango balute euren ihesean bizirauteko; baldin eta... gertatuko ez diren hamaika baldintza gertatuko balira, hau izango litzateke argazkiaren nondikakoren testigantza freskoa:

DESERTOREA: Altxamenduak modu behartuan harrapatu nau.

Aktore izateko ilusioarekin heldu nintzen duela urtebete hirira iparraldeko mendietako herrixka batetatik. Baina ogi papurrak komedianten lanetan sabeleratzeke zailtasunak eramanez ninduen okerreko bidea hartzera: ejertzitoko zalditerian orotariko basomutilen aliatatze kanpainan eman nuen izena... lan nekeza bai, baina konplikaziorik bakoa: zaldien garbitasunaz eta elikaduraz arduratu baino ez nuen egin behar. Gaur arte sekula ez nuen fusilik izan esku artean. Jeneralaren urgentziatzeko aginduz abiatu gara armaturik presidenteari jauregira.

NESKATOA: Dalmarirekin nengoen jauregiko egongelan Mortina Kaddelen album ilustratu bat irakurtzen... Dalmarinire txikitako laguna da... zen. Leherketa bat aditu dugu, eta presidenteari aginduak bete ditugu: zer gerta ere isilik egoteko, hitzik ez dadila atera gure ezpainetatik, ez dezatela jakin nortzuk garen, segitzeko arineketan katedralera daraman korridore ezkutuan barrena. Bere horretan, zabalik utzi dugu zaldi gorriak ageri ziren albuma.

DESERTOREA: Durduzak taldearen urratsak otzan jarraitzera eramanez nau. Eztanda batek jauregiko atetzarra leherrarazi,

eta jeneralak sei soldadu bidali gaitu presidentea atzema-
tera. Eskailera nagusian gure zain aurkitu dugu, inolako ja-
rrera oldarkorrik erakutsi gabe errenditu da.

NESKATOA: Korridorea ondo ezagutzen dugu, eta aise ailegatu
gara erlikia zaharrez mukuratu den katedraleko sakristiara.
Behinola, estatuarentzat, sakratuak izan omen zirenak eta
orain baliorik gabeko latorrizko eta harrizko objektuen bil-
tegia da sakristia, eta Dalmariri eta bioi izugarri gustatzen
zaigu... zitzagun bertan jolastea.

DESERTOREA: Anabasak gidatu nau desertziora. Gure gibeletik
sartu den jeneralak ulertu ez ditudan bi esaldi zuzendu diz-
kio presidenteari, ahots-behera; eta boz-gora, sei soldaduo-
i ilaran jartzeko agindu digu... eta fusilak kargatzeko, eta pre-
sidentea destatzeko, eta tiro esatean tiro egiteko. Fusila eror-
tzen utzi dut, eta beste bost fusilek sortu duten oihartzuna-
ren asaldura profitatuz galdu naiz noraezean arrapaladan.

NESKATOA: Arnasa larria eta zangalatraba hotsak aditu ditugu
Dalmarik eta biok, baina ez diguzu gordetzeko astirik
eman... atea izerdi izutuarekin igaro duzu. Oihu egiteko
bulkada eten dugu zu ikustean. Presidentearen agindua: zer
gerta ere isilik egon.

DESERTOREA: Elkar ezagutu ez arren, etsituta, laguna naizela
esan dizuet... minik ez dizuedala egingo... irteera baten
bila nabilela. Horrela da, ezta?

NESKATOA: Bai, horrela da. Eta Dalmarik katedraleko aldarera
ematen duen atea seinalatu dizu.

DESERTOREA: Bai, zure lagunak. Baina berandu izan da ordu-
rako. Soldaduak segika nituen eta nahigabe zuengana bi-
deratu ditut.

NESKATOA: Ez zetozen zure atzetik. Presidentearen alabaren bila etorri dira.

Moztu dezagun hemen bi protagonisten aitortza. Itzuli daitezela irudira itzal bakar izatera. Niri dagokit orain ustez soberan diren teselekin gertatutakoaren mosaikoa osatzea. Badut horretarako lizentzia. Nik ikusi dut nola zulatzen den garezur bat nire aldamenean. Nik ikusi dut garun bat lehertzen nire parean. Ni izan naiz odolki horren putzu. Hortaz, badut bi neskatoetako bati gertatutakoaren lastura kontatzeko lizentzia. Nik istorio hau kontatu nahi dizut, irakurle.

Presidente fusilatu berri duten bost soldaduak jeneralarekin batera sartzen dira bi neskatoak eta desertorea izu laborriz urtzen ari diren sakristian. Jeneralak ez ditu inoiz umeak gustuko izan, zimikoa sortzen dio haien presentzia ahulak, horregatik egiten du zalantza bi nesken artean. Ezin antzeman dezake bietako zeinek duen presidentearen bisaia antzik. Menpeko dituen soldaduei egiten die galdera: «Nor uste duzue dela presidentearen alaba?». Erantzuna ez da soldaduen ahotik iristen. Bi nesketako batek, minutu eskas bat lehenago desertoreari aldarerako atea seinalatu dionak, bere laguna seinalatzen du. Keinu horrek ez du dudarik uzten jeneralaren logika aldrebestuan, eta azken agindua ematen die bost gizoni jauregira daraman korridorerantz erretiratu aitzin: «Emaiozue tiro laguna salatu duen neskari, zuek ikusi zer egiten duzuen beste bi koitadu horiekin; hori bai, utz itzazue bizirik, estatatu berriari komeni zaio presidentearen oinordetzarik izango ez dela ziurtatuko duen lekukoren bat egotea».

Kondenatua izan den neskatoak ezin du lanturik jo: karezko hondartza bateko hareaz lastu zaio eztarria, eguzki erre

batek izozten dio kopeta, zaldi gorriak trostan ikusten ditu oze-
ano beltzean itotzen.

Abisatuta zeunden, irakurle: aldamenean heriotzaren sega
igarotzen sumatu duenak soilik hartu ditzakeen lizentzia poe-
tikoak. Kontran, nola kontatu bizi izan ez dena? Nola kontatu
kontatu ezin dena? Zein baimenekin deskribatu daiteke gi-
zonkeriaz eta umiliazioz blaitutako tortura eszena koldar bat?
Zein aldarterekin deskribatu daiteke talde bortxaketa jarraitu
bat? Nork ematen digu gure hezur-haragietan bizi izan ez du-
gun sufrikarioa zehatz-mehatz transkribatzeko eskumena? Li-
teraturaren estetikan eta etika gordean ez ei du denak balio, la-
gun.

Bukatzeko, eta neskatoak eta gizonak osatzen duten itzal
bakarra katedraleko hormatik ihes herrenean behingoz joaten
uzte aldera, zentsuratutako eszena doilorraren erdian, konta-
ketaren mugarri izango den detaile bat bakarrik nahi nizuke ai-
patu: sakristiaren ertz batean abandonatutako bi taula, zeine-
tan hamar mandamentuak azaltzen diren zizelkatuak letra
larriz.

Berba horiek izango dira gure bi protagonistei geratuko
zaizkienak iltzatuta... memoria zikinduaren nolabaiteko arin-
garri.

KONTRATUA edo limoiondoaren abaroa

*Bizitzaren norabidea aldatzea da gosaritarako
galleta bat gehiago edo galleta bat gutxiago
kafetan bustitzeko erabakia hartzea.*
(Clockaut andrea)

Hotzak agintzen du gaur, ezin zitekeen bestela izan. Ez elurrak, ez izotzak; hotzak bai, hotzak mendean hartu ditu mendiak eta basoak, lakuak eta laku ertzetako etxe bakanak. Balirudike egun bakarreko bosgarren urtaro batean sartu dela deskuiduan egutegia. Hogeita bost urte igaro dira, eta orain adin ertaineko emakumea bilakatu den argazkiko neskatoak mahuka-hutsez jantzita ateratzen du bihar desizoztuko den ogia hozkailutik. Emakumeak badaki jertsea edo berokia janzteak ez diola egunak dakarren hotza disimulatuko.

Hogeita bost urte igaro dira: zazpi urte iraun zuen jeneralen diktadurak, eta hemezortzi urte beteko ditu aurki demokrazia patetikoaren biziraupen-ahalegin hutsal honek. «Adin-nagusitasuna konplitzear den estatu librea» irakurri du atzoko egunkariko titularrean emakumeak, eta kafe katiluaren hondoari erreparatu dio gero. Ezin deszifratuzko kondar marroi bustiak.

Goiza urratzen duten beleen karrankek gogorarazi diote emakumeari limoiondotik zitroinik berdeenak eta garratzenak bildu behar dituela gaur espero duen bisitarako. Gertatuko

duen limoi-edariak ez du ez azukrerik ez izotzik beharko. Eguna bezain hotza izan behar du enkontruak. Hotza izan behar du, halaber, zernahirengatik ospatuko den brindisak.

Arrats behera da orain; zakurrak bakarka zaunka hasten diren ordua. Baina ez da zaunkarik aditzen helduaroaren gailurrera malda-behera iritsi den argazkiko gizonak autoko motorra itzali duenean. Nahita berandutu da. Orduak igaro ditu lakuaren ertzean harriekin ura zulatu guran enkontrua atzeratzen. Autotik atera eta emakumearen etxea inguratzen duen egurrezko hesian huntza hazi dela konturatu da. Ezertarako batio ez dion detaile inozoa. Lorategiko limoiondoaren abaroan aurkitu du emakumea Gibain Kurkatemen *Lore mingotsak, zapata hezeak* liburua irakurtzen.

Azkenekoz elkar ikusi zutenean emakumea ezkondata zegoen; eta gizonak aspaldi abandonatu zuen beste bikotekide gazte ederra. Agian, biek ala biek bizi zuten fideltasunezko egoera lotu horrengatik azaldu ziren bata bestearekiko xaloago, beroago eta maitekorrago azken-aurreko aldi hartan. Orain ez daukate ezelako loturarik inorekiko, eta horrengatik hartu dute biek egunari ohore egiten dion hoztasunezko jarrera eroso hau, zer gerta ere. Badakite: sentiberatasunak mina areagotzen die.

Gizonak kartazal bat eman dio emakumeari. Emakumeak Kurkatemen liburua itxi du presarik gabe kartazalak dakartzan bi orrietatik lehena presaz irakurtzeko. Zifrak: klinika espezializatu baten telefono-zenbakia, identifikazio zenbakia eta gordailu zenbakia. Mediku-diagnosi ofizial bat dakar bigarren paperak. Gizona gaixo dago. Hilabete eskas batzuk barru hiltzera doa. Karramarroa. Atzera ibiltzen ez dakien karramarroa. Gupida keinurik ez, arren. Babes hitzik ez, arren. Emakumeak bi

edalontzitara limoi-ura iraultzen du pitxarretik. Edalontzietako bat eskaintzen dio gizonari. Badakite zer behar duten bata bestearengandik. Aspaldi eskatu zioten elkarri mesedea. Topa eginez sinatzen dute behiala ahoz idatzi zuten kontratua, hotz; horrelako egunetan sinatu beharko liratekeelako kontratu denak, hotzean, inolako sentikortasunik erakutsi gabe, ahuldade imintziorik egin gabe.

Emakumea etxe barrura erretiratzen da. Gizonak limoiondoari eskainitako azken begiratuan detaile inozorik aurkitzen ez duela jabeturik emakumearen pausoak segitzen ditu. Bata bestearen atzetik igotzen dituzte logelarako eskailerak. Arropak erantzten dituzte eta biluzik sartzen dira ohean. Elkar hotz bersarkatuta garaituko ditu lo hotzak. Azken aldia izango da.

Eltxo turutari astunak iratzarri du emakumea. Zomorro hegalariairen presentzia ernegagarria da behinik behin atzoko giroak epelera egin duen seinalea. Ez da gizonaren arrastorik mihise artean; ez da haren itzalik logelako hormetan. Mesa-notxe gainean dagoen Daphne Pilessaren poema erotikoen antologia batekin akabatu du emakumeak eltxo ongi puztua. Paretan lodi geratu diren tantoetan ezin identifikatu daiteke eltxoaren oturuntza izan den odolaren kode genetikoa norena den: gizonarena, emakumearena edo bart arratsean zaunkarik egin ez zuen zakurrarena.

Beheko solairutik maleta hotsak aditzen dira. Emakumeak ederto ezagutzen du maleta batek jo dezakeen musikaren eskala osoa. Erritmo pausatua datorkio entzumenera: vals gaizki interpretatu batena; baina finean, vals nare batena. Erritmo antzekoan ohetik altxatu eta komun-ontzian eseri da. Marka zuriko paper-zapi umelekin garbitu ditu alua eta ipurdia. Ume

jaioberri biluzien irudiak ageri diren markako produktuak ez zaizkio atsegin. Hegazkinez bidaiatzeko jantziko lituzkeen arropa erosoak aukeratu ditu, nahiz badakien ez duela hegazkinik hartuko; eta ia irizpiderik gabe aukeratutako beste zenbait janzki sartu ditu bidaia-poltsa zabal batean. Nezeserra ez zaio ahaztu, eta edizio merkeko bi liburu ere sartu ditu eskuko poltsan: Glore Falinaren *Autistaren bihotza* eleberria eta Samaza Billezen *Ostrukaren zaintzan ahortzi nuena* saiakera liburua.

Sukaldean harrapatu du emakumeak gizona beheko solairura jaitsi denean; eta zelatatzeko intentziorik gabe zelatatu du. Kaxatxo batzuk hozkailuko apalategietan egokitzen ari da. Bart sinatutako kontratuaren arabera, iraun behar duten kontu garrantzitsuenak nola partekatuko dituzten adostu beharko dutela otu zaio emakumeari izozkailuari erreparatzean. Gogorapen zoro bat. Orain ez da horretarako unea; gainera, gizonak bere tratua zatia molde egokian beteko duela fio da. Horrelako gorpuzkera batean zein bestelako gizon ezkutatu litekeen pentsatzen du emakumeak. Zer paper joka dezakeen etorkizun eskaseko orainean bizitza laburraren lohiak eta loriak neurri berean pairatu dituen gizasemeak. Nola moztarotuta igaro nahi duen bestalde ezdeusera.

Gogoratzen dituen rol orotan ikusi du airoso: tiranoaren aurrean makurtu ezin den bufoiarenean; deabruaren aurrean makurtzen den abadearenean; arpa-jotzaile mainguairenean; bere isla zauritzen duen taxilariarenean; katukia saltzen duen harakinarenean; malabarista itsuarenean; dontzeila birjinekin desgogoz oheratzen den zaldun bakartiarenean... Ez da debaldekoa estatuan izan den aktorerik sinesgarriena eta eman-korrena izatearen ustea. Odol-izerdiak sufritu ditu antzokien

errege izateko bidezidorrean: diktadura garaian klandestinitatik kontrakulturaren gidari lehenik, eta abangoardia artistikoaren iraultzan gero. Eta orain, behinola idazle izan zen emakumeak ez daki zein lumarekin brodatuko duen gizonaren lumajea. Gai izango ote den hitzartu duten berari dagokion partea obratzeko. Gai izango ote den literaturara itzuli eta enkarguzko lana taxuz idazteko. Inspiratuko ote duen hiriak gizonak eskatu dion antzezlanara garaiz bukatzeko. Sortzaile erretiratuaren eta interprete desagertuaren zubia berreraiki behar absurdo hau. Samurtasun unerik ez, mesedez. Ahulezia etenik ez, mesedez. Kontrarioak haren hitza bete dezan bere hitza bete eta kito. Adostutako tratua ahalik eta arinen konplitu.

Sukaldeko atean zain dagoen emakumearen presentziaz jakabetu da gizona. Aurrez entseatua dirudien jauzi txiki bat egin du atzera: zerbait oroitu duen seinale. Patriketan arakatu ostean emakumearen eskua hartu du. Hiru giltza eman dizkio: hiriko apartamentukoak dira bi giltza, autoaren giltza da hirugarrena. Etxetik irten eta lorategia inguratzen duen hesiaren zurezko atera hurbildu dira biak. Gizonak ez du bidaia-poltsa zabala zamatzen lagundu emakumea; badaki ez lukeela onartuko horrelako keinu adeitsurik. Bien begiradek dena esan dezakete, horregatik ez diote elkarri begietara so egiten. Bart gaueko besarkada hotzak sortutako mina igaroko da, ez du luze iraungo haren arrastoak. Beldur imintziorik ez, otoi. Agur bigunik ez, otoi. Emakumeak autoko maletategian sartzen du bidaia-poltsa zabala; motorra pizten du eta urrunetik zakurren bat auzartzen da zaunka egiten. Gizona limoioindoaren abaroan eseritzen da. Zuhaitzaren itzalak ez dauka atzoko itzalaren antzik.